



**LAZKAOKO
UDALA**

**2023KO AZAROAREN 23KO
OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita hiruko azaroaren hogeita hiruan, arratsaldeko sei eta erdietan, Lazkaoko Udal Osoa bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzarraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Eneritz Miranda Muxika, Aitor Altuna Oiarbide, Amagoia Naldaiz Mingo, Josetxo Sese Eztala, Unbe Echaniz Perez, Aritz Goicoechea Gonzalez de Audicana, Joxemai Ormazabal Sukia, Egoitz Bergara Azpirotz, Maialen Amundarain Irizar, Haritz Antoñanzas Urdangarin eta Maria Carolina Aguirre Mastrangelo.

Aitziber Azurmendi Imaz zinegotziak ezin etorria adierazi du.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

Iñaki Eskisabel Zurututza kontu-hartzaileak ere bileran parte hartu du.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkeztu da 2023ko urriaren 26an egindako ohiko bilkurako akta, eta idatzita dagoen moduan onartu da.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatetzaren Ebazpenen berri eman du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditu da.

III.- ALKATETZAZ ONARTUTAKO KREDITU ALDAKETEN BERRI EMATEA.-

Alkateak, Ebazpen bidez onartutako kreditu gehigarri bidezko 6. kreditu aldaketaren eta transferentzia bidezko 1. kreditu aldaketaren berri eman du.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditu da.

IV.- 2024KO AURREKONTUA ETA UDAL ARAUA.-



**LAZKAOKO
UDALA**

Jarraian 2024. urterako aurrekontua aurkeztu da Osoko Bilkurara bere onarpenerako. Aurrekontu honek Udalarena berarena eta Lazkao Lantzen, S.A. Udal elkartearena hartzen ditu bere barne.

Aurrekontu espedientean jasotako dokumentuen artean aurrekontua burutzeko udal araua ere badago.

Aurrekontu hauek Ogasun Batzordean informatuak izan dira.

Alkateak aurrekontuaren azalpen orokorra egin du.

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) dio ezezko botoa emango dietela aurrekontu hauei. EHBilduri askotan entzun diotela berea jarrera koherentea dela, esaten dutena egiten dutela. Eta hala egiten saialu direla aurtengo aurrekontuetan ere: herritarrei kanpainan emandako hitza betetzen. Aurrekontuekin estu-estu lotuta dauden udal zerga eta tasak aho batez onartu dituela aurten udalbatza honek. 2023rako udal-gobernuak onartu nahi izan ez zuen hobekuntza bat proposatu zutela, hobari- eta laguntza-sistemen onuradun ziren pertsonen kirol- eta kultur zerbitzuetara sarbidea erraztea. Hori onarturik, eurek ere onartu egin zituztela 2024rako zerga eta tasak.

Legealdiko lehen aurrekontuak zirenez, 4 urteetarako plangintza orokor bat egitea proposatu zutela dio Ormazabalek. Urtez urte landuko dituzten aurrekontuen oinarri izango den plangintza. Bi alderdiek kanpainan herritarrei agindu dizkieten proiektu eta egitasmo komunitan oinarritutako plangintza hain zuzen ere. Eta galdetzen die ea zergatik egin dioten uko hortaz hitz egiteari eta horren arabera lehentasunak eta kopuruak zehazteari. Tamalez, ez zutela ondo interpretatu zerga eta tasetako adostasuna. Lazkaoko PNVk lehengo lepotik duela burua: herria, adostasuna, aurrekontuen izaera soziala ahotan, eta berak irizitakoa bakarrik egin. Berrito gogoraraziko dietela beraiek adostasun horien bila jarraituko dutela eta datozen lau urteak dituztela horretarako.

Miranda zinegotziak (EAJ-PNV) erantzun du 3 Ogasun batzorde egin direla. Aurten urteroko gidoia aldera batera utzi dutela eta berritasun batekin etorri dela EH Bildu: gobernu plan bat adosteko beharra aurrekontuak adostu nahi badira. Harritu ditu aurrekontuak adosteko, Ogasun batzordera joan eta proposamen bakar bat ere ez aurkezteak. Marko komunik ez dutela erabili dutela aitzakia gisa, proposamenik ez dutela estaltzeko. Marko bat jartzea diotela, baina edukia falta zaiela iruditzen zaiela beraiei.

Moduen aldetik, bitxia iruditu zaiela. Izan dutela aukera proposamenak aurkezteko. Eta aurkeztu izan bazituzten, agian aurrekontu hauek osoagoak izango zirela. Baina ez dutela aukera aprobeztatu eta adostasunetara iristeko intentziorik ez dutela garbi utzi dutela. Ez dutela gobernuarekin aurrekonturik adostu nahi, beren ustez ez dutelako arriskurik hartu nahi.

Jarrera koherentea dutela diotela, baina beren ustetan kontraesanetan maisu direla. Bitxia dela aurrekontuei ezetz esatea, proposatutako inbertsioen % 43 beren programan lehentasun gisa lerrokatu zituztenean. Beren leloa "egingo dugu" dela, baina aurrekontuei ezezkoa emanda, ez dutela egingo. Eta ez litzatekeela ezer egingo beraiengatik izango balitz.





Gaiaz eztabaidatu ondoren eta Ogasun Batzorde informatzailearen proposamena-
ren aurrean, Osoko Bilkurak, aldeko zazpi boto (EAJ) eta aurkako bost botoz (EH Bildu)
honako akordio hauek hartu ditu:

Lehena.- 2024. urterako Udal aurrekontua, bere espedientean dagoena, hasierako izaeraz
onartzea. Aurrekontu honek Udalaren beraren aurrekontua eta Lazkao Lantzen, S.A. Udal
elkartearen aurrekontua hartzen ditu eta beraien sarrera eta gastuen kapitulukako labur-
penak honako hauek dira:

2024KO UDALAREN BERAREN AURREKONTUA

SARRERAK:

I	KAPITULUA	ZUZENEKO ZERGAK	1.609.711,00 €
II	KAPITULUA	ZEHARKAKO ZERGAK	115.000,00 €
III	KAPITULUA	TASAK ETA BESTELAKO ZERGAK	2.042.864,00 €
IV	KAPITULUA	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	5.455.395,00 €
V	KAPITULUA	ONDARE-SARRERAK	12.726,00 €
VI	KAPITULUA	INBERTSIOEN BESTERENTZEA ETA HIRIGINTZA- KO JARDUERETATIK ONDORIOZTATUTAKO BESTE SARRERA BATZUK	0,00 €
VII	KAPITULUA	KAPITAL TRANSFERENTZIAK	3.500,00 €
VIII	KAPITULUA	FINANTZA AKTIBOAK	2.000,00 €
IX	KAPITULUA	FINANTZA PASIBOAK	0,00 €
SARRERAK GUZTIRA			9.241.196,00 €

GASTUAK:

I	KAPITULUA	PERTSONAL GASTUAK	1.745.921,00 €
II	KAPITULUA	ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN GAST.	5.363.636,00 €
III	KAPITULUA	FINANTZA GASTUAK	1.600,00 €
IV	KAPITULUA	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	784.350,00 €
V	KAPITULUA	KREDITU GLOBALA	0,00 €
VI	KAPITULUA	INBERTSIO ERREALAK	1.216.416,00 €
VII	KAPITULUA	KAPITAL TRANSFERENTZIAK	127.273,00 €
VIII	KAPITULUA	FINANTZA AKTIBOAK	2.000,00 €
IX	KAPITULUA	FINANTZA PASIBOAK	0,00 €
GASTUAK GUZTIRA			9.241.196,00 €

2024KO LAZKAO LANTZEN, S.A.REN AURREKONTUA



**LAZKAOKO SARRERAK:
UDALA**

VI	KAPITULUA	INBERTSIO ERREALEN BESTERENTZEA	35.364,81 €
VII	KAPITULUA	KAPITAL TRANSFERENTZIAK	255.625,89 €

SARRERAK GUZTIRA	290.990,70 €
------------------------	--------------

GASTUAK:

II	KAPITULUA	ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN GAST.	12.000,00 €
III	KAPITULUA	FINANTZA GASTUAK	4.500,00 €
VI	KAPITULUA	INBERTSIO ERREALAK	274.490,70 €
GASTUAK GUZTIRA			290.990,70 €

2024KO UDALAREN AURREKONTU KONTSOLIDATUA

SARRERAK:

I	KAPITULUA	ZUZENEKO ZERGAK	1.609.711,00 €
II	KAPITULUA	ZEHARKAKO ZERGAK	115.000,00 €
III	KAPITULUA	TASAK ETA BESTELAKO ZERGAK	2.042.864,00 €
IV	KAPITULUA	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	5.455.395,00 €
V	KAPITULUA	ONDARE-SARRERAK	12.726,00 €
VI	KAPITULUA	INBERTSIO ERREALEN BESTERENGANATZETIK ETA HIRIGINTZAKO JARDUERETATIK ONDORIOZ- TATUTAKO BESTE SARRERA BATZUK	35.364,81 €
VII	KAPITULUA	KAPITAL TRANSFERENTZIAK	259.125,89 €
VIII	KAPITULUA	FINANTZA AKTIBOAK	2.000,00 €
IX	KAPITULUA	FINANTZA PASIBOAK	0,00 €
SARRERAK GUZTIRA			9.532.186,70 €


GASTUAK:

I	KAPITULUA	PERTSONAL GASTUAK	1.745.921,00 €
II	KAPITULUA	ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN GAST.	5.375.636,00 €
III	KAPITULUA	FINANTZA GASTUAK	6.100,00 €
IV	KAPITULUA	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	784.350,00 €
V	KAPITULUA	KREDITU GLOBALA	0,00 €
VI	KAPITULUA	INBERTSIO ERREALAK	1.490.906,70 €
VII	KAPITULUA	KAPITAL-TRANSFERENTZIAK	127.273,00 €
VIII	KAPITULUA	FINANTZA-AKTIBOAK	2.000,00 €
IX	KAPITULUA	FINANTZA-PASIBOAK	0,00 €
GASTUAK GUZTIRA			9.532.186,70 €

Bigarrena.- Aurrekontu hau jendaurrean erakustea hamabost egun baliodunetako denboraaldian, erreklamazio ondorioetarako.



**LAZKAOKO
UDALA**



Hirugarrena.- Jendaurreko denboraldian erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, aurrekontu hau behin betikotzat onartua joko litzateke espresuki hartutako akordio berri baten beharrik gabe.

V.- 2024-2027 URTEETARAKO DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA.-

Azaroaren 17ko 38/2003 Legeak, dirulaguntzen ematea arautzen duenak, bere 8.1 artikuluan xedatzen du, dirulaguntzak ematea ezarri nahi duen edozein administrazio publikok edo bestelako edozein erakundek, aurrez, plan estrategiko batean zehaztu beharko dituela dirulaguntza horiekin lortu nahi diren helburu eta ondorioak, horiek lortzeko beharrezko epea, aurreikusitako kostuak eta beraien finantzaketa iturriak, eta betiere aurrekontu egonkortasun helburuak betetzearen menpean jarrita.

Udal honek 2024-2027 epealdirako dirulaguntzen plan estrategikoa prestatu du eta dokumentu hau, aurrez Ogasun Batzordeak informatua izan ondoren, Osoko Bilkura honetara ekarri da bere onarpenerako.

Osoko Bilkurak, gaia aztertu ondoren, aho batez, 2024-2027 epealdirako plan estrategiko hau, bere espedientean dagoena, onartzea erabaki du.

VI.- TAXIEN HIRI TARIFAK.-

Gipuzkoako Taxilarien Elkarteak 2024 urterako hiri-tarifen proposamena bidali du Udal honetara. Datorren urterako % 2,7ko igoera proposatu du. Goierriko herri guztietarako hiri-tarifa berdinak planteatzen dira.

Hiri-tarifen proposamen hau, Udalaren Osoko Bilkurak onartzea erabakiko balu behintzat, Eusko Jaurlaritzako Merkataritza Sailera bidali behar da honek onar dezan.

Proposamenarekin batera auto-taxien ustiaketak dituen gastu eta sarreren azterketa ere bidali dute.

Gaur egun indarrean dauden tarifak jarraian azaltzen direnak dira:

HIRI - TARIFA (2023)					
1 TARIFA *			2 TARIFA **		
Abiatze saria	Egindako kilometroa	Zain egindako ordua	Abiatze saria	Egindako kilometroa	Zain egindako ordua
4,1288	1,2926	24,6886	4,1288	2,0615	38,8025

2024rako Gipuzkoako Taxilarien Elkarteak proposatu dituen hiri-tarifak honako hauek dira:

HIRI - TARIFA (2024)

1 TARIFA *			2 TARIFA **		
Abiatze saria	Egindako kilometroa	Zain egindako ordua	Abiatze saria	Egindako kilometroa	Zain egindako ordua
4,2403	1,3275	25,3552	4,2403	2,1171	39,8501

* Tarifa hau lanegunetan 07:00etatik 22:00etara aplikatuko da

** Tarifa hau egun orotan 22:00etatik 7:00etara eta igande eta dagokion autonomi eta toki arautegietan finkatutako jaiegunetan 07:00etatik 22:00etara eta halaber larunbatetan eta abenduaren 24 eta 31n aplikatuko da.

Hau guztia kontuan izanda, Udal Osoko Bilkurak, aho batez, honako erabaki hauek hartu ditu:

- 1.- 2024 urterako auto-taxi garraio zerbitzuetarako proposatu diren hiri-tarifak onartzea.
- 2.- Eusko Jaurlaritzako Merkataritza Sailari eskatutako dokumentazio aurkeztea, egin beharreko izapideak egin ditzan.

VII.- KIROLDEGIA HANDITZEKO 5.1 FASEKO OBRAREN 14. ETA 15. EGIAZTAGIRIAK.-

Joxemiel Barandiaran kiroldegiaren birmoldaketa lanen obra zuzendaritza daramaten Jovino Martinez Sierra arkitektoak eta Alberto Olabarrieta Etxeberria arkitekto teknikoak lan hauen obra egiaztagiria egin dute.

Hamalau garren obra egiaztagiria EHUN ETA HAMAR MILA ZAZPIEHUN ETA HAMAHIRU EURO ETA HOGEITA BAT ZENTIMOKoa (110.713,21 €) da, gehi BEZ.

Hamabos garren obra egiaztagiria aldez, BERREHUN ETA HAMAIIKA MILA ZORTZIEHUN ETA LAUROGEI EURO ETA HIRUROGEITA HEMEZORTZI ZENTIMOKoa (211.880,78 €) da, gehi BEZ.

Lanak Iparragirre Eraikuntza Lanak S.L. enpresa ari da burutzen.

Udal teknikariak oniritzia eman die ziurtagiri hauei.

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) dio gai honen inguruan abstenitzen jarraituko dutela inbertsioarekin bat ez datozelako. Proiektu hau beste orden batean egin behar zela dio.

Hau guztia kontuan izanda, Hirigintza, Etxebizitza eta Zerbitzuetako batzordearen proposamenaren aurrean, Osoko Bilkurak, aldeko 7 boto (EAJ), aurkako botorik gabe eta 5 abstentzioz (EH Bildu), ziurtagiri hauek onartu ditu.



VIII.- AZAROAREN 25EKO EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA EZABATZEKO EGUNAREN INGURUAN, EAJ-PNVK AURKEZTUTAKO ADIERAZPENA.-

Etxaniz zinegotziak (EAJ-PNV) ondorengo adierazpena irakurri du:

"AZAROAREN 25erako, EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA EZABATZEKO EGUNARI BURUZKOA ADIERAZPENA (Eudelek onarturikoa)

Emakumeenganako indarkeria ezabatzeko nazioarteko egun honetan, azaroak 25, sexu-indarkeriak adingabeen artean gero eta eragin handiagoa duela azpimarratu eta arreta jarri nahi dugu, indarkeria mota hori ikusezinen eta normalizatuena baita, eta urtetik urtera gora egiten jarraitzen baitu.

Hainbat txostenen arabera, sexu-delituen biktimen % 40 adingabeak dira, gehienak neskak eta nerabeak. Adingabeen sexu-askatasunaren aurkako delituen ehunekoak ere gora egin du. Laguntza espezializatuaren eskaerek ere gora egin duten arren, datuek erakusten dute neskek zailtasun handiak dituztela indarkeria-adierazpen jakin batzuk antzemateko beren portaeran, bai berdinen taldean, bai harreman afektiboetan.

Mugimendu feministak eta adituek horien arrazoiak genero-ikuspegidun kalitatezko sexu-hezkontzarik ez izatea eta familietan eta eskola-inguruneetan gizarte-balio egokiak transmititu ez izana direla adierazten dute. Era berean, ohartarazten dute adingabeen artean genero-mito eta -estereotipoak hedatzen ari direla, baita haurren sexualizazioari eta pornografiaren bidezko sexu-hastapen goiztiarrari buruzkoak ere, neurri handiangoan, ohiko erabilerako sare sozialetan. Kasu askotan, gainera, biktimen sinesgarritasunik eza antzematen da, eta horrek eragotzi egiten du esku-hartze goiztiarra eta erreparatzailea, adingabeei egindako sexu-abusu eta sexu-erasoen kasuetan.

Horren guztiaren ondorioz, harreman afektibo-sexualen eta gizonek eta emakumeek harreman horietan duten rolaen irudi desitxuratua zabaldu da. Sexu-indarkeria hutsaldu eta legitimatu egiten da, emakumeen nahiak eta gorputzak menderatzeko modu gisa. Jokabide larrienek eraso sexualetara eta fisikoetara eramaten dezakete, baita, muturreko moduetan, emakumeen hilketetara ere.

Horren guztiaren aurrean, euskal erakundeek eskura dituzten estrategia eta mekanismo guztiak sustatu behar dituzte, emakumeek eta neskek bizitza garapen osoa izan dezaten, askatasun- eta segurtasun-baldintzetan. Hain zuzen ere, beraien desirak, afektuak eta sexu-portaerak derrigortzerik eta indarkeriarik gabe adieraz ditzaten, genero-estereotipoak eta genero-aginduak alde batera utzita.

Udalak, herritarrengandik hurbilen dauden erakundeak diren aldetik, udalerritan berdintasunezko eta indarkeriarik gabeko bizikidetzarako baldintzak bultzatzeko arduradunak dira.

Hori dela eta Lazkaoko Udalak konpromiso hauek hartzen ditu:

- Indarkeria matxista prebenitzeko tokiko estrategia eratzea/hobetzea/indartzea, adingabeen artean sexu-indarkeriari aurre egiteko egiturak, baliabideak, zerbitzuak edo programak ezarri.*



- *Biktima adingabeen inguruan sexu-indarkerien antzematea eta arreta goiztiarra gaitzea/hobetzea, tokiko koordinazio-protokoloen bidez.*
- *Sexu-indarkerien biktimekin esku hartzen duten profesionalen prestakuntza-programak diseinatzea/ezartzea/eta ebaluatzea.*
- *Sentsibilizazio-programak diseinatzea/garatzeta/hobetzea herritarrekin, eta bereziki gurasoekin eta irakasleekin, IGEen bitartez, genero-ikuspegidun kalitatezko sexu-hezkuntzaren beharrari buruzkoak.*
- *Hezkuntza ez-formaleko espazioetatik hezkuntza-prozesuak garatzen laguntzea, adingabeen indarkeria matxistaren aurkako jarrerak indartzeko.*

Konpromiso horietan oinarrituta, honako ekintza hauek proposatzen dira:

- *Neskei eta nerabeei zuzendutako ahalduntze-programak indartzeta, sexualitate-ari, bikote-harremanei, maitasun erromantikoari, autodefentsa feministako tailerrei eta abarrei buruzkoak.*
- *Mutiko eta mutilei zuzendutako esku-hartzeak abian jartzea, afektibitatea, harreman-ereduak, maskulinitate-ereduak edo rol sexistak eta parekidetasuna gainditzeko estrategiak lantzeko.*
- *Indarkeria digitala prebenitzeko eta hari erantzuteko estrategiak lantzea, indarkeria matxista mota berri horiei ere aurre eginez.*
- *Udalerriko adingabeekin hezkuntza-prozesuak indartzeta, BELDUR BARIK programaren eta tokiko beste ekimen batzuen bidez.*

Era berean, herritarrei dei egiten diegu, azaroaren 25ean, emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeko nazioarteko egunean, LAZKAON deitutako mobilizazioekin bat egitea."

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) adierazi du egokiagoa izango litzatekeela adierazpen hau elkarrekin egitea.

Hau guztia honela, gaia aztertu ondoren, Osoko Bilkurak, aho batez, adierazpena onartu du.

IX.- ZAINTZAREN INGURUAN, EAJ-PNVK AURKEZTUTAKO MOZIOA.-

Naldaiz zinegotziak (EAJ-PNV) ondorengo testua irakurtzeari ekin dio:

***"Euskal zaintza eredu sendo, eraldatzaile,
feminista eta komunitario baten aldeko mozioa***

Historian lehen aldiz, joan den urriaren 29an Zaintzaren eta Laguntzaren Nazioarteko Eguna ospatu zen, eta testuinguru horretan, ekimen asko antolatu dira Euskadin zaintza-eredu berri bat aldarrikatzeko. Osasun sistemaren eta euskal gizarte zerbitzuen kalitatea eta sendotasuna funtsezkoak izan dira Covid-19aren pandemiaren aurkako borrokan; eta, orain, itun sozial eta politiko berri bat adosteko garaia da, gure zaintza eredu lidergo eta erantzukizun publikoan oinarrituta eraldatzen jarraitzeko, sektorearekin, cragile nagusiekin eta inplikaturako gizarte erakundeekin lankidetzan.





Gaur egun, Gipuzkoan, lau pertsonatik batek (% 22,9) 65 urte edo gehiago ditu. Gipuzkoako biztanleriaren zahartzea da gaur egungo erronka nagusietako bat, eta hortik eratorzen da zahartze aktibo eta osasungarria sustatzeko beharra, baita estrategiak garatzekoa ere, adineko pertsonak pairatzen dituzten mendekotasun eta bazterkeria egoeren gorakadaren aurrean.

Testuinguru horretan, lazkaotarrak eragile konprometituak izan behar dugu printzipio komunitarioetan oinarritutako balio-gizarte baterantz joateko, eta modu aktiboan parte hartu behar dugu zaintza-eredu erreferentzial bat eraldatzen eta martxan jartzen, zaintza eskubide unibertsala eta, pertsona, gizarte-ongizateko eredu berriaren ardatz nagusia izango dena.

Horregatik guztiagatik, Lazkaoko Udalak konpromisoa hartu du Euskadiko zainketen aldeko itun sozial berrian parte hartzeko, eta zainketa-sistema sendo, eraldatzaile, komunitario eta feminista defendatzeko. Horretarako, ardatz estrategiko hauek garatzeko konpromisoa hartzen dugu:

1. **Pertsona, zainketa-eredu berriaren ardatza.** Arreta pertsonalizatua, unibertsala eta kalitatezkoa izateko eskubide subjektiboa bermatzea.
2. **Zainketen profesionalizazioa.** Zaintza-modu formal eta informaletan diharduten langileen lan-baldintzak sendotzea eta hobetzea, elkarrizketa sozialaren bidez eta laguntza-sistema indartuz.
3. **Etxeko zaintza lehenesten duen sistema.** Adineko hamar pertsonatik zortzik etxean bizitzen jarraitu nahi dute. Horregatik, etxeko zainketak hobetzea eta berrikuntza txertatzea beharrezkoa da, zaintza profesionalizatuz, familia-zaintzaileari lagunduz eta komunitatearen parte-hartzea indartuz.
4. **Sistema inklusiboa eta berdinzalea.** Zaintzaren ardura emakumeek izan dute historikoki eta, horregatik, beharrezkotzat jotzen dugu desberdintasun-egoera hori konpontzeko neurriak hartzea feminismo konprometitu eta berdinzale batetik, baita arraza edo jatorri etnikoarekin lotutako diskriminazioekin amaitzeko ere, lanera-ko segregazioa eta desberdintasun sozialak murriztuz.
5. **Koordinazio soziosanitarioa areagotzea.** Gizarte eta osasun sistemen arteko lankidetzak handiagoa eta hobea izan behar da, erabiltzaileek arreta integrala jaso dezaten euskal administrazioaren aldetik, mendekotasuna, dibertsitate funtzionala, gaixotasun mentalen bat edota gizarte bazterkeriako egoeraren bat izan.
6. **Komunitatea indartzea.** Giza garapen iraunkorrerako gune gisa komunitate-loturak indartzea, gizarte-kohesioa eta zaintzarekin konprometitutako erakunde, elkarte eta pertsonen parte-hartzea areagotuz.
7. **Zainketen iraunkortasuna eta kalitatea bermatzea.** Eraginkorragoak izanda kudeaketa hobetzea, horretarako baliabide ekonomiko berriak aztertuz eta egungo zainketa-ereduaren bideragarritasuna eta etorkizuneko ongizatea bermatuko duten neurri fiskal berriak hartuz, belaunaldien arteko konpromiso berriarekin.



8. **Zaintzen elkarlaneko gobernantza.** *Zaintza publiko eta komunitarioko eredu bidezkoago, berdintasunezkoago eta erantzunkideago baten alde egiteak berekin dakar elkarlaneko gobernantzako mekanismo berriak antolatzea: publiko-pribatua, publiko-publikoa, publiko-komunitarioa.*

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) dio ez dutela mozio hau onartuko desegokia dela eta desgaraian egin dutela iritzita. Bat egiten dute EAJren mozioan proposatzen den herri ituna lortzeko ideiarekin, baina hori lortuko bada, nahitaez, aldebakartasunari uko egin eta indarrak biltzeari ekin behar zaiola dio. Hau honela, testu alternatibo hau aurkeztu du:

"EAEn Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legeak Gizarte Zerbitzuetarako eskubidea eskubide subjektibotzat aldarrikatu zuen, herritartasunari dagokion eskubidea den aldetik. Baina, errealitateak agerian utzi du, helburu hori ez betetzeaz gain, murriztu beharrean, desberdintasunak areagotu egin direla azken urteotan, hain zuzen ere, lurraldeen arteko eta lurraldeen barruko desorekak eta, ondorioz, pertsonen artekoak: prestazio eta zerbitzu publikoen estaldura gutxitu da eta horiek eskuratzeko eragozpenek bere horretan jarraitzen dute.

Ohiko zaintza-sistemek gainbehera izan dute eta erakundeek ez diete behar bezala erantzun euskal gizartean sortzen ari diren zaintza beharrei. Ondorioz, egungo zaintzak desegokiak, eskasak, prekarioak eta desberdintasun sozialen sortzaile dira, eta ez dira libreki aukeratuak. Egun, Zaintzak gurean era eskas, sexista eta merkantilista batean ebazten dira.

Zaintzen antolaketa gaur egun ezagutzen dugun moduan ez da jasangarria. Biztanleriaren zahartzearen ondoriozko desoreka demografikoak beharrak handitu ditu, eta are handiago bilakaluko ditu etorkizunean. Zaintzaren krisi sakon batean murgildurik gauden honetan, beharrezko ondasun unibertsala dela onartu, familia eremutik atera, emakumeon bizkarretik kendu eta zaintzak erakundetzea da herri bezala dugun premia handienetako bat.

Horrela, ezinbesteko gertatzen da zaintzen demokratizaziorako bidean jauzi bat eman eta Gizarte Zerbitzuen Legean aurreikusitako zaintza duin eta unibertsalak bermatuko dituen Sistema Publikoaren erakundetze berri bat. Gizarte zerbitzu horrek herritarrentzako publikoa eta bakarra izan beharko du, eta, horrekin, zaintzak baloratu, aitortu eta konpentsatzeko prozesua abian jarriko da.

Zaintza sistema publiko komunitarioa eraikitzeko, behetik gora eraikiko dugun prozesu baten beharra daukagu, eta horretarako eztabaidaguneak, ezberdinen arteko harreman-espazioak eta kontsentsuak topatzeko borondatea ezinbestekoak dira. Esaten denaz gain, egiten den moduak izugarritzko garrantzia du honelako herri-erronka baten aurrean.

Zaintza erakundetzearekin batera, kontziliazio erantzunkidea proposatzen dugu: pertsonen betebeharrak eta beharrezkoak pertsonal, familiar eta profesionalei erantzuteko neurri-multzoa. Horrekin batera, inplikaturako eragile guztiek, gizonen, erakunde publikoen eta enpresek beren gain hartuko dituzten neurri-multzoa. Kontziliazioa erantzunkidea izanik, zaintzaren ardura ez zaie egokituko batez ere emakumeei, eta lanaren gaur egungo banaketa orekatuko da. Banaketa desorekatu horixe dago, hain zuzen ere, emakumeek bizitzako hainbat esparrutan jasaten duten desberdinkeria- eta diskriminazio-egoera estrukturalen dinarrian. Kontziliazio erantzunkideak alderdi hauek sustatuko ditu: ordaindu gabeko





etxeko lanetan eta zaintza-lanetan gizonak erantzunkide izatea, enplegu-egiturak bizitza pertsonalaren eta familiaren betebeharrak eta beharrezkoak egokitzea; zaintzen hornidura unibertsala eta publikoa izatea; prestazio ekonomikoak eta neurri fiskalak prestatzea, eta delako helbururako egoki irizitako beste edozein neurri.

Gai honen inguruan lanean aritu den eta egun ere ari den mugimendu feminista, sindikatuak, eragile sozialak eta hirugarren sektorea balioesten ditugu. Guztien hausnarketa, ekimena eta proposamenak ezinbestekoak dira prozesu honetan. Besteak beste, nabarmendu nahi dugu elkarlanerako helburuz sortu den dinamika mobilizatzailea, zeinak greba feminista orokor baten bidez zaintzen krisia mahaigaineratu eta aldaketarako erronkak gidatu nahi dituen.

EAEko Berdintasun Legearen erreformak dakarren bezala, "Pertsona guztiek zaintzak jasotzeko duten eskubidea bultzatuko da, zaindutako pertsonen autonomia sustatzen dela bermatuta eta emakumeek eusten dituzten familia-oinarriko zaintza-ereduak ez erreproduzitzea lehenesten duten neurriak abian jarrita". Honetarako, besteak beste "Euskal botere publikoek zaintzen hornidura unibertsala eta publikoa ziurtatu behar dute. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemak eskainiko duen zerbitzu eskuragarri, malgu, kalitateko eta eskuraeraz bidez zainduko dira eguneroko jardunetarako beren kabuz baliatu ezin diren pertsonak, autonomia funtzional nahikoa ez dutenak. Hori guztia zaintza profesionalen sektorean lan-baldintza duinak bermatuz egingo da".

Erakundetze prozesu berri bat abiatzea ezinbesteko jotzen dugu, zaintza duin eta unibertsalerako eskubidea bermatzeko. Horixe izango litzateke ongizate estatuaren egiazko zutabea. Horretarako, besteak beste:

- Euskal Gizarte Zerbitzuen Sistemaren aurreikusitako zaintzara zuzendutako prestazio eta zerbitzuak birdefinitu beharko dira, bai eta horiek garatzeko eta horien sarea hedatzeko inbertsioak ere.*
- Zaintzak ezin du negozio izan, eta Gizarte Zerbitzuen desmerkantilizazioa eta zaintza sektoreko lan-baldintzak duintzeko prozesua abiatzea ezinbesteko jotzen dugu.*
- Gizarte Zerbitzuen doakotasuna bermatzeko prozesu graduala abiaraziko da.*
- Zerbitzuen finantzazioaren inguruko eztabaida ireki beharko da.*

Aurrekontuetan partida konkrituak eta denboran jarraituak ezarriko dira prozesu hauei ekin eta jarraipena emateko."

Alkateak dio zaintza eztabaida publikoaren lehen lerroan jarri nahi duela EAJK Gipuzkoan, eta horregatik zaintza eredu berri baten aldeko apostua egiten dutela. Gipuzkoako Foru Aldundiak itun sozial berri baten bitartez, eredu publiko eraldatzaile eta feminista nahi duela Gipuzkoarentzat; eta Lazkaon itun sozial berri horretan parte hartzeko konpromisoa hartu nahi dutela.

Gipuzkoan martxan dela zaintza eredu aldatzeko trantsizioa. Horretarako GFAk 4 ardatzetan oinarritutako trantsizio agenda bat sortu duela, eta zaintzen iraunkortasuna eta kalitatea bermatze aldera, 100.000.000 € adjudikatu dizkiola honi. Jakinda, noski, epe luzerako dela. Lazkaon itun horretan parte hartzeko konpromisoa hartu nahi dutela.



Honen inguruan eztabaidatu ondoren, Osoko Bilkurak aldeko 7 botorekin (EAJ-PNV) eta aurkako 5 botorekin (EH Bildu), mozioa onartu du.

X.- ABENDUAREN 3KO EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNAREN INGURUAN, EAJ-PNVK AURKEZTUTAKO ADIERAZPENA.-

Naldaiz zinegotziak (EAJ-PNV) ondorengo testua irakurtzeari ekin dio:

"Euskal hiztunon ahotsa, euskararen zabalbide Euskal hiztuna, euskararen zabalkunde digitalaren eragile Nagusia

Gure alde, euskararen alde alegia, inork egin dezakeenaz galdetu ohi dugu sarri euskal hiztunok, bereziki Euskararen Nazioarteko Egundaren inguruko gogoetan. Ezin uka, jakina, egin beharreko galdera eta gogoeta dela, baina ez litzateke inola ere zilegi, are gutxiago baliagarria, ikuspegi horretara mugatzea euskararen aldeko jarduerara.

Garrantzi betekoak izaten jarraitzen dute, ezinbestekoak, euskararen erabileraren aldeko ekimen kolektibo presentzialek, jendetsuek, kale girokoek; ezinbestekoak diren bezala euskara ardatz duen elebitasun orekatua gauzatzen jarraitzeko lankidetzara pribatu-publiko harmonikotik datozen ekimen eraginkorrek oro.

Baina digitalizazio aurreratuaren garai honetan, adimen artifiziala makulu ezezik kultur, komunikazio eta gizarte garapenaren bektore nagusi bilakatzen ari zaigunean, erronka berri bat iritsi da gure komunitatera.

Algoritmoak ausazkotasunarekin lotzen ditugu sarritan eta adimen artifiziala gure kontrol eremutik at dagoen esparru batekin. Baina teknologia aurreratu guzti honen muinean, gizakiak etengabe elikatutako tripa daude. Makinen autonomia gero eta handiagoa izanik ere, autonomia hori era batera edo bestera elikatu eta bideratu daiteke. Bada, elikatze horretan dugu euskaldunok etorkizun hurbilerako erronka, bai erakundeen aldetik baita norbanakoen aldetik ere.

Sortuko diren tresna, aplikazio, gailu... berriek gure hiztun komunitatearen eta gure euskararen muina behar dute erraizetan. Horretarako, ahotsa, hizkera, hizkuntza ezagutza, aldaera, estiloa, berezitasuna, esakera edo idazkera etorkizuneko tresnen elikagai bilakatu behar ditugu.

Euskararen zabalkunderako aro digital berria hasi da, inplikazio pertsonalaren bidez eta komunitate gisa jarduteko unea iritsi da. Har dezagun geure esku bereziki adimen artifizialaren bidetik datozkigun lanabesak euskaraz funtzionatzeko bidean tinko jartzeko ardurara, erakutsi diezaiozun euskaraz lan egiten geure eguneroko jardueran ezinbesteko lankide dugun tresneria digitalari.

Oparo bueltatuko digu-eta gure oraingo ahaleginaren mozkinak, modu ezin praktikoagoan bueltatu ere: euskarazko datu-base sendo bat sortuta, euskarak zuzeneko sarbidea izango du sare teknologiko nagusien zirkuituetan, eta, horren eskutik, eguneroko eta helburu ugarietako aplikazioetan.





Ez da amets bat, hil edo biziko eginkizuna baizik euskararen garabideari begira eta, batez ere, digitalizazioaren unibertso ekidinezinean gure hizkuntzak atzerapausorik gabe aurrera egin ahal izan dezan.

Beste hainbat urrats egin ditu euskarak digitalizazioaren eremuan oraingo honen aurretik ere, esate baterako, itzultzaile neuronalaren, itzulpen automatikoaren, ahots sintesiaren eta transkripzioaren alorrean eman diren urratsak.

Hortxe beraz, bidea: erabil ditzagun gure alde, euskararen zabalkundearen alde, teknologia kolaboratiboak, izugarria izango dugu ahaleginaren ordaina, guztiz aldekoa eta, batez ere, atzerazina.

Euskal hiztunon komunitateak zor dio bere buruari ahalduzterako bide honetan urrats erabakigarriak egitea, digitalizazioak sortutako beharrak asetzea, kasu.

Eta ireki diezaiozun ahalegin honen atea, baita ere, euskarara hurbiltzen ari diren herritar guztiei, euskal herritarren komunitate eleaniztunak elkartasunez, harrotasunez eta konzientzia betean bizi dezan euskararen aurrerabide digitala.

Eman diezaiozun ahotsa euskarari, mundua euskaraz izendatzen jarraitu ahal izan dezagun. Euskarari zor diogu. Geure buruari zor diogu."

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) dioenez, EAJk aurkeztu duen mozioaren mamian ez dute eragozpen handirik; bai, ordea, mamia digitalizazioaren beharretara mugatzean eta aldebakartasunez aurkeztean ere. Aldebakartasunez, aurkeztu dutela, eta elikatze digitala bezain garrantzitsua den eginkizun bat monopolizatzeak ez diola euskarari inolako mesederik egiten. Kontsentsuak bilatu beharra dagoela.

Ikaskuntzaren doakotasuna; euskararen dekretua bete eta betearaztea; euskarazko ekoizpen kulturala laguntzea, zalantzarako tarterik utzi gabe; euskarazko komunikabideak lehenestea administrazioak egiten duen publizitatean; hezkuntzak euskalduntzea eragozten duten ereduak ezabatzea... zergatik ahaztu behar dituzten galdetzen du Ormazabalek.

Alkateak bere harridura adierazi du adierazpenari ezezkoa emateari dagokionean.

Honen inguruan eztabaidatu ondoren, Osoko Bilkurak aldeko 7 botorekin (EAJ-PNV) eta aurkako 5 botorekin (EH Bildu), adierazpena onartu du.

XI. GALDERAK ETA ERREGUAK.-

Ez da galdera edota erregurik egon.

XII.- BILERAREN AMAIERA.-



Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du arratsaldeko zazpiak eta hogeita hamabost direnean eta nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dut.



A handwritten signature in blue ink is written over a horizontal line. The signature is stylized and appears to be "Lazkao".

A long, sweeping handwritten signature in blue ink is written across the lower right portion of the page. The signature is highly stylized and appears to be "Lazkao".